

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Hezkuntza Departamentuak EGA titulua eskuratzeko lehen probako behin-behineko emaitzak argitaratu ditu

Idatzizko azterketa datorren martxoaren 15ean izango da.

Jueves, 06 de marzo de 2014

Hezkuntza Departamentuak EGA azterketako lehen probako behin-behineko emaitzak argitaratu ditu. <https://educa.navarra.es> webgunean agertzen dira. Gainditu dutenek idatzizko proba egin beharko dute datorren martxoaren 15ean.

Bi egun balioudun eman dira (osteguna eta ostirala, martxoak 6 eta 7) erreklamazioak egiteko. Idatziz aurkeztu ahal izango dira Hezkuntza Departamentuko erregistroan edo [Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan](#) jasotako beste edozein bulegotan.

Behin betiko emaitzak eta martxoaren 15eko proba non egin behar den azaltzen duen informazioa martxoaren 12an argitaratuko dira Nafarroako Gobernuaren zerbitzuen katalogoko [EGaren fitxako](#) emaitzen atalean.

Idatzizkoan bi ariketa daude. Batean, testu labur bat idatzi behar da (gutxienez 150 hitzeko gutun, ohar edo antzeko bat) eta, bestean, epaimahaiak proposatutako gai edo egoera bati buruzko testu luzeago bat (gutxienez 250 hitz). Hezkuntza Departamentuak [materiala](#) jarria du nahi duenaren eskura. Bertan, azterketaren prozedura, ebaluazio-irizpideak eta ariketa bakoitzaren adibide bana ikus daitezke.

Lehen proba gainditzeko 100etik 65 puntu lortu behar dira.